

Irabazi-iturri nagusia dronen salmenta izango da, dron bakoitza 50.000 €-tan salduko baitugu. Gure drona orokorrean beste dronak baino merkeagoa izango da eta estrategia honen bidez dron kopuru handiagoa salduko dugu. Dronen konponketak ere izango dira beste irabazi-iturri garrantzitsu bat.

Gure drona ordaintzeko bi aukera egongo dira. Alde batetik, diru kantitate guztia aldi batean ordaintzea hau da, 50.000 €-ak zuzenean ordaintzea. Baita ere, epeka ordaintzeko aukera emango dugu bi urtetan zehar. Hilabete bakoitzean 2.083 € ordaindu beharko ditu gure bezeroak 24 hilabetetan zehar.

Dronarekin batzen ditugun plastiko guztiak birziklatzearen truke dirua ematen dizuten zentro ekologikoetara eramango ditugu. Drona konponezina bada, haren materialak ere zentro horietara eramango ditugu, diru-sarrera gehiago izateko. Hauek ez dira diru-sarrera handiegia izango baina gure diru-sarreraren osagarria izango da, kapital handiagoa lortzeko helburuarekin.

Drona alokatzeko aukera emango dugu beraz, beste irabazi-iturri bat izango da. Dronaren alokairua ordu kopuruaren arabera izango da gutxi gora behera 100€ ordua.

Hasieran gure proiektua arrakasta izaten badu, akzioak jaulkiko ditugu inbertsio-iturri berriak lortzeko. Bazkideek kapitala jartzeko aukera izango dute gure enpresan.

Dronaren kudeaketan parte-hartzen duten enpresa guztien publizitatea egingo dugu diruaren truke, garraio enpresena, piezak fabrikatzen dituzten enpresena... Adibidez babesle antzeko bat eginez hau da, enpresa desberdinen izenak dronen kanpoaldean jartzea pegatuen bidez.

Gure diru-sarreraren ehunekoak horrelakoak izango dira gutxi gora behera:

Dronen salmenta %40

Dronaren erreparazioa %20

Bazkideen finantzaketa %30

Enpresen babesa %10